

6 mantangorri



CO

AZOKA

LIBURUA

Izenburua: 'Beldarren hegaldia'.

Testua: Irati Bediaga. **Marrazkiak:** Enrique Morente.

Orrialde kopurua: 64 orrialde. **Bilduma:** Xaguxar.

Argitaletxea: Elkar.



Irati Bediaga

IDAZLEA

«Momentu txikiez gozatzearen magia islatu nahi izan dut»

Nahiak ballet eskolan izena eman du. Ez da bere ametsa balleta ikastea, baina eskolako lagunek izena eman dute, eta etxeen ere horretara animatu dute; beraz, azkenean, izena ematea erabaki du. Sabelean sentitzen dituen kilimak tximeletak direla esan diote etxeen. Nahiak, ordea, tximeletak, ez, beldarrak direla uste du: tximeletak bihurtu aurreko xomorroak, alegia.

Haurtzaroko beldur eta konplexuen inguruko istorio honekin Mikel Zarate saria esjuratu zuen Irati Bediagak.

Hamasei lanen artetik zureak jaso zuen saria. Nola hartu zenuen berria?

Literatura lehiaketa batean parte hartu dudan lehen aldia izan da, eta ez nuen esperantza handirik. Hala ere, beti dago ilusio hori hor. Arrazoia, ezetz; emozioak, berriz, zergatik ez? Arrazoia emozioa jada irentsi zuenean eterri zen berria. Xabier Mendigurenek bidali zidan mezua, irabazlea neu nintzela esanez. Ondoan nuena besarkatu, lagunei deitu... emozioa gailendu zen azkenean.

Nahiaren kezkak dira liburuaren oinarria.

Bai, hori da, hamar urteko neskato baten kezkak edo bizitzaren aurre-



an dituen galdera ikurrak eta eten puntuak dira istorioaren mui- na.

Inguruak bultzatuta, Nahiak balleteko ikastaro batean emango du izena. Lagunak berarekin daude ikastaroan, etxekoan babes du... baina bera ez da erosu sentitzen, ez du bere lekua aurkitzen. Hala, bere buruarekin eta ingurukoekin haserretuko da. Bainan apurka-apurka konturatuko da errua ez dela inorena, eta berak bilatu behar duela bere bide propioa. Zer nahi duen eta zer ez duen nahi argitzen hasiko da; beldarrak hegoak mugitzen hasiko dira.

Kanpora begiratu beharrean, bere barrenera begira egindo du neskatoak barrutik hasi eta kanporainoko hegaldia.

Hainbat mezu esanguratsu helarazten ditu Nahiak.

Bai, badaude horrelako mezuen zi- pritzinak istorio osoan. Nahiak kanpotik entzun edo irakurritako esaldien bilduma egiten du bere koaderno morean. Berez, hitzez osatutako teoriak dira, eta oso-osoan egunerokotasunean aplika- tzaez da erraza. Bainan nire helbu- rua izan da irakurlearen gain haus- narketa era gitea, eta mezuren baten hazitxoan hor geratzen ba- zaio, baina ezin hobeto. Nik, irakur- le moduan, gustuko izaten dut li- buruek hazitxoren bat edo beste ustea nigan. Hazi hori nola erein, hori bakoitzak erabaki dezala.

Eta zein hazitxo utzi nahi izan duzu Nahiaren bidez?

Norbera dela norbere bidea eraiki behar duen hori. Besteak ahol- kuak, esanak... kontuan hartzea ondo dago, baina zeure barruko ahots horrek kanpokoenak baino garrantzi eta kariño handiagoa be- har du. Askotan ahaztu egiten zai- gulakoan nago. Zeure buruaren, gorputzaren, ideien... lagun egin, eta gustura sentiarazten zaituen hori aurkitzearen eskubide eta plazera aldarrikatzea izan da as- moa. Aurrekoaz gain, helmuga eta erronka potoloak ahaztu, eta mo- mentu txikiez gozatzearen magia hori ere islatu nahi izan dut.

Txikitako oroitzapenak izan dituzu gogoan idaztean?

Txikitako oroitzapenak baliagarri izan ditut idazteko orduan, baita ez horren txikitana bizi edo ikusitakoak ere. Azken fi- nean, idazteko orduan bi oin- narri ditut beharrezko: nire errealitate hurbila (ni eta in- gurua) eta irudimena. Batak bestea elikatzen du, eta alde- rantziz. Batzuetan mamia da nik bizi edo hurbilean ikusita- ko hori, eta azala irudimen- ren bidez eratzen dut. Beste- etan, mamia irudimen soilez egina dago, eta azala da nire oroitzapenek zipritzintzen dutena.

Hau da haurrentzako idatzi duzun lehen liburua. Erraza egin zaizu neskatila bati ahotsa jartzea eta haurrentzat idaztea?

Gozatu egin dut. Inongo helburu zehatzik gabe idatzi dut; gustura sentitzen naiz idaztean. Lehiaktean parte hartzeko epea amaitu baino egun bat arinago bakarrik sentitu nuen halako urduritasun puntu bat. Urduritasun hori senti- tza ere polita da.

Nahiaren ahotsetik idaztea erra- za egin zait; egia esan, lehenengo pertsonan idaztea hirugarren per- tsonan idaztea baino erosoa goa egiten zait. Pertsonaia baten izan eta izenetik idazterakoan, hein ba- tean pertsonaia horren izaera zku- tsatzen zara. Kasu honetan ume bihurtu naiz, eta horrek erraztu egin dit haurrentzako istorio bat idaztea.